

ETENGABEKO GOSEAREN AURKA EGUN BATEKO BARUAU

Otsailaren 8'an amaitzen da munduko gosearen aurkako lan-aldia. 6'an, berriz, illaren leendabiziko ostiralez, gogozko barau-eguna ospatuko dugu.

Aurreko ekin-aldian 47.320.120.600 milioi pezeta bildu ziran. India'n, Urreko eta Urrikoko Sortaldean, Afrikan, Ego-Amerikan eta Españan zabalduak dituzte. Leku aurtako nekazaritzari, txukundadeari eta jakintzari laguntzearen bareratuak.

Baia da dirudi urtean beingo gogoraldirekin naikoa egiten dugula. Urte guzian geiago bururatu ere ia ez zaigu egiten. Oraingo la gutuntzako onekin urte guziazko lur zabaleko gosea kenduko bagenduz bezelaxe jokatzen dugu.

Bitartean eusko amabostek goseak iltzen jarraitu bearko dute. Euntetik ogei ta amabost auleriaren, gaitzen eta ezin-biziaren erasoak astinduko ditu.

Bitartean egunero berrogei milla geiago jan-eske aoa zabaltzen dituzte.

Bitartean, el onen 17'an, Paris'en bildu diran jakintsu batzuk mundu, jendearren-jendez, goseak garbituko duala esaten.

Bitartean. Biafran bertan, gudak eta goseak bi milioi erail ditu.

Etta gorpuzteko gosea aundia bada ez da txikiagoa barukoa. Nor-bera izunkizan eta inungo izunkizan idazten eta irakurtzen ez dakitenak, milioika, «Jakintza-gosea, janari-gosea baiño lotsagarriago da: idazten eta irakurtzen ez dakiana gutxi-jana dago». [E. P.]

Zenbat eta zenbat jakinduria beren burua lantzeko erita ta aukerarik gabe. Egia jakiteko biderik gabe. Gizarateko gertaera eta arazoan berri jakin gabe. Dirurik ez dutelako jakintza-bideak itxtita...

Zenbat beren iritziak agertzeko eskubiderik gabe. Beren iritziak aurrera ateratzeko egokierarik gabe. Beren arazoak zuzentzearen elkarzete eta biltzeko eskubiderik gabe. Itza ateratzeko beldurrez. Jauntxokeriaren aspian elbarrituta. Aukeramen-doina erabiltzeko askatasunik gabe. irabazi berak luktzen laurdena irabazten ez dutela. Diruaren, tresnen, aurrerapenen, gauzen, indarraren, aundien mirabetza lotsagarrian. Nor izateko erantzatsunik gabe...

Zenbat erri goriaren eta diruaren truke beren eritasuna saldu bearean arkitzen diran. «Ori egiten uzten duan erriak berak duan gauzari onena galduko luke. Bizitzeagatik, bizitzeko dituan bere arazoak ukatuko lituzke, noski. Kristoren erakutsiak erriantzet ere balio du: Zertarako litzaieko gizonari (erriari) mundu guzira irabaztea, bere burua (anima) galduko balu?» [P. P.]

Zenbat erri txiki irentsi dituan aundiak! Ase gabeko zenbat jakin-mifi, askatasun-egarri, erri-zaletasun... dagoan lurboira onen!

«Orrenbeste erri goseak iltzen dauden bitartean, orrenbeste sendi dir gorrian bizi diran bitartean, orrenbeste gizaki ezjakintasunearn mugildurik dauden bitartean, orrenbeste ikastola, gaixotegi eta tajuzko etxe-bizitza jasotzeko dauden bitartean, agirik edo izukituko bonbonkeri guzira, bakarkako edo lagun-arteko geiageri guzira, arma-mentuetaiko nor-geiagotzema guzira, izenik gabeko gaizpidezko pekatua da». [P. P.]

«Pekatu ua salatzera beartuta gaude. Entzun beaigute erantzunkizun duanak beranduegi gerta baiño leen». [P. P.]

«Bestela beren diru-zakekeriak Jainkoaren ascrrea eta beartsunen gorrotza sortuko ditu, neurtu zien alako ondoren beltzekin». [P. P.]

«Ania edo arrebaren bat: larrugorri eta egumeroko zer-janik gabe balego, eta zuetakoren baina, «zoaz pakean eta jan zazu eta berotu zaitze» esango balio, baiña gorpuztak bear duan emen ez, zer aurreratu luke orrekini?» [Sant. 2,15-16.]

«Baia gosea kentzea bakarrak ez da naikoa. Ez da txirotasuna atzeratzea bakarrak ere. Gutxiegi da bear-gorriari burruka bizia eta gogorra egitea». [P. P.]

«Morrontza eta lotura guzietatik eskatirik, gizonak giza-bizitza jator bat egingo duan mundu bertari bat erakli bear da giza dantzetat». [P. P.]

Euskera idatzaren batasunari buruz

Arantzazuko billera, dogma bezela artu bear aal degu?

Euskeraren elburua «H» aal da? Batasuna zer da? Batasuna, batzuk edo talde batek, nai duana egitea aal da? Koldo Mitxelena. Euskalerria ta euskera ber-bera aal da? Izkuntzari, teknika aldetik bakarrak begiratu bear aal zaio? Euskera, bere euskalki guzikiin. Zientifikoa asmatuko aal da? Euskalerria, Mitxelena baiño euskeralgo sakongorik eta jakintsuagorik ez aal degu izan? Luis Mitxelena, gure egunetako zientifikorik aundiena danarren. Gure izkuntzaren ezagutzailerik sakonena ta euskera erabiltzailerik aundiena aal da?

Arantzazun asmatutako batasun-eraren bat aurrera eraman nai aal dute? Ta, esango banu, Arantzazuko lege oiek, indarrezko legeak gogora erazten dizkigula? Pьерres Lafitte'k euskeraren batasunari buruz, auxe esaten digu.

«Beraz idatziko degu aal bezela, baiña zenbait izi bearko ditugu sarrazi, ez denak batean, baiña urtean oinbeste. —Jarraitzen du—: Adibidez, maionesa ba dakizute nola egiten dan: ezartzen da ontzi batean, eta gaitza, piper beltza, ta oiek oro, azkenean ezartzen da, aurratza gaitze ere, gorringoa; ta gero oiek orobear dira jo ta jo, baiña gero olioaz ezarri bear da, bere olio tantaka kurtzen da; sobera ezartzen baldin ba dezuz, uts egiten duzu zure maionesa. Eta ene uestez, bear dugu olako gauza bat, ez egin euskerarekin, bear degu denok maionesa ori ondo egin. Ortan da egia».

Elizak, liturjian egin duan euskeraren batasunean, pauso bat eman duela iruditzen zaigu, ta ez ain eus-

kaltzindiaren aurka edo, euskaltzaindiak artutako erabakien aurka.

Eta gaurko jardunaldi ua amaitzeko. Ondo-aski dakigu, euskalerria irau-arazi duena, euskera dela, ua, izan ez bagendu, antzifia zan lur joa gure euskalerria.

Euskera, itsas erdiko itsas-ontzia dirudi, baiña itsas-ontzia, urez inguraturik, eta euskera... etsaiez. Ala ta guztiz erasoaldik izan arren, naiko zintzo eutsi diogu. Ba dakigu arerrera ere, ez zaiola erasoaldirik paltako. Orregatik, gure erria negarrez arkitzen degu, espaldian bere bioztean negu otzaren izotza nabaitzen bait du. Zaina, tamalez ala izanik ez dugu etsi bear. Saiatu gaitzen, euskalerriari, udaberri eder bat eskontzen.

SAGARZAZU'tar JOSEBA

Zeruko Argia

ZERUKO ARGIA
Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA
Naparroko-Kantauriko ta Aragoiko Kapuzinoak argitaratuta
(Carlos III, 22. Pamplona)
DONOSTIA'N
Oquendo, 22 Telf. 26666
ARPIDE SARIA:
Barruan 215 pezeta
Korreo batasunetako errietan. 265 »
Aterrietako beste errietan 285 »
Aidez Aurrez galdetu.
Salmentan (Ale bakoitza) 5 pezeta

Probintziaren probintziakera

Urtarrilaren 4'eko ZERUKO ARGIAN bi artikulua irakurri ondoren ezin nagoke zertxobait erantzun gabe.

Lehen horrialdean, Jose Lasak egindako artikuluan, hauxe dakusat: «Araba, Bizkai ta Nafarro (sic) onuntz begira. Izan ere, izkuntzaren ispillu, eredu eta lege Gipuzkoa izan oi da beti».

Beste artikulua Jose Azurmendik egin da, «Fernando Mendizabalekin hizketan» izenokoa, 7'gn. horrialdean. Honetan, aditzaren sistema aipatzen, gipuzkera aipatzen da egokiena balitz bezala ta horretarako hauxe esan: «Gipuzkoa Euskal Herriaren erdian egotek eta... Puntu zaillegia ta luzeegia da hau, baiña derrigor hitz batean esan behar badut, nik ere gipuzkoerazko aditza hartuko nuke oinharritzko batera-bide bezela».

Dirudienez Gipuzkoa da Euskal Herriaren burua, zila eta ohore-lekua. Nolako harrokeria! Nondik norako haize puztuak!

Zertarako guzti hau? Zertarako harrokeriak Euskal Herrian? Nik ez dut neure burua inorena baino goragotzat, baiña ez da beharagotzat ere. Euskaldun guztiak berdink gara, edo izan gara orain arte. Zertarako harrokeria hori? Zeri datoriki?

Gainera, goazen puntuz puntu! Lehentzen da da Gipuzkoa Euskal Herriaren erdia, Nafarroa baizik, mapa behintzat aldatu ez bada.

Bigarren ez da Gipuzkoako Euskerak Bizkaikoak baino garrantzi ez hedadura haundigot, ta hau ez da neronek esana, Ibon Sarasolak 34'gn JAKIN ena baizik; hara zer dioen «Euskal literatura numerotan»: Bizkaierazkoak: 220.000 Gipuzkerazkoak: 120.000, Hego-nafarrak: 70.000, Mugaz beste aldekoak: 90.000. Beraz gehien hitz egiten den Euskalkia ez da gipuzkera. bizkaiera baizik.

Literaturari begiratuta ez dut ueste gipuzkoarrek batasunaren alde ezer haundirik lortu dutenarik. Lehengo ta behin beraien eten zuten nafar Euskalkijator eta aberatsaz genduan lotura eta nafar aldera jokatu beharrean probintziakierari ar izan ziren aspaldidunak. Bestetik gipuzkera mintzatuaren egoera ez da bat ere atsegina.

Nik neuk orain arte gipuzkera hartu dut literaturarako, beratu Gipuzkoako osoan berdinkizi mintzatuena zelakoa (bizkaiera Bizkai osoan ia zeharo berdina den bezala), baiña gauzak auzertutuz egia latz bete oharu 'naiz: literatur gipuzkera ez dela egiazkoa. asmakera ta geometria hutsa baizik.

Bizkaitarrok ondo gogoratzen gara «dauts, dautzu, dauz, dabez» eta honen antzeko forma asmatu edo gutxi erabiliei nolako kritika gogorra egin deuten Gipuzkoako gramatikalerri arazo oi osoak, jatorrenak: «deust, deustut, ditu, ditue...» eta abar direla aipatuz, mende zaharretako idazleek eta oraingo Herriak erabili bezela.

Ederki, ez da zertan ezer asmatu bear. Baiña hori inoren Euskalkiari dagozkioariki, zeren gipuzkera idatzen, nahi duten guztia sartu arren, ez dira horretaz oharzten. Fitsu dakusate lagunaren begian eta ez gapiroa bereanean.

Azkueren lanak ikusteetan eta belarria Gipuzkoan jarrean aho zabalik gera gaitzeko beste euskaldunok hain «bukun» eta «fina» den gipuzkera idatzia nola esaten den ikusi ta entzutean.

Zaio, zaigu, zaizu idatzi eta ia gipuzkoar denek: zaku, zaku, zatzu edo zaitzu esan. Dizkio, dizkie, gera, zera ta dizkitzu idatzi ta: diozta, diozta dizka, dizte, gae, zea, ta dituztu esan. Jakina, benetako egoera hau delarik ezin ditek «Gipuzkoan esaten direlako arazoia» erabil Euskera batuan «gipuzkera teorikoa» sartzeko.

Guztioak dakigu Nafarroako Euskeria izan dela, ta zorigaitzoko jazoerak gerta ez balitez orain ere ba litzateke, literatur Euskeraren oinarri ta zimendua, Nafarroako Euskeratik, gainera, Zuberoara ta gipuzkera ere sortuak dira.

EGIA GARRATZA BEGIEN AURREAN

Agirre Etustondo'ren uburu maitsuan da auzo zer ikasirik. Egu ezagutzea ez da maiz atsegina izaten; eta gauza bera esan ditek Gipuzkoako egoeraren egi jakiteak. «GAUK» en txostena arretaz aztertzea, halere, guztiz beharrezkoa iruditzen zait.

Begien aurrean jarri zaizkigun datuak aski dira, nik ueste, zertan gauza eta zertara ari geran argi eta garbi ikusteko. Ga genekien hori, bai, gutxi gora-behera; baiña orotzuzpenak eta esamesak jankatu egiten dira, alaiakatzu bihurtzen, eta azkenean ez dira eguteren irudi, eguteren estalki baizik.

Gure hizkuntzaren egoerari buruz horixe ari zaigu gertatzen. Leioak ez ditugu jaita: kaletarrak erderaz ari dira, baserritarrek euskeraz, Donostia'n inoz baino sarriago aditzen da gure hizkuntza, eta abar. Lelo horiek ipuinak dira, gezurra ere bai askotan; baiña gure barnea lasatuzko balio dute.

Geroa haurrek baitakarte, GAUK'en Txostenak erakusten digu ondo zera, euskerari dagokionez. Gipuzkoako euskal etorkizuna: 100 haurretatik, 54'2-ek ez dakite gaur erderaz baizik; eta, horiez gain, 76'12'1-ek eta 76'17'1-ek euskeraz bezin ondo, edo hobeki, erderaz dakite. Hitz batez, hortaz, 76'83'4-ek erderaz aisago egiten dute gaur gipuzkoar haurrek euskeraz baino.

Har ditagun orain erdera aisa nagusi duten herriak (213 erdaldun, edo gehiago): Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Beasain, Billaranka, Donostia, Eibar, Elgoibar, Ermami, Errendiera, Irun, Lazkai, Legazpia, Pasaia, Segura, Coruluzte, Urretxua eta Zumarraga. Danera, 495.553 lagun. Batez beste, bertan, 22.531 lagun dituzte herri horiek; eta berategin, nabarmen ere danez, industria da nagusi. Aurrera joan diran gure herri haundietan, beraz, nekazaritza ik industriara igaro diran herrietan, erdera da nagusi. Gaurteza da nagusi, ez bihar edo etzi. Hizkuntzaren hedera-legeak ezagutu ezkerero, etorkizuna garbi dago: herri horiek guztiak erdaldunak egingo dituzte beren inguruk, olio tatek ur gainean hedatzen diran bezela.

Har ditagun orain, alderantziz, euskera orainoz nagusi duten herriak: Abaltzisketa, Aizarnazabal, Alkiza, Ataun, Aia, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Ermaldez, Erreñu, Gaintza, Gabilra, Getaria, Irueirieta, Isasondo, Leaburu, Lizartza, Orea eta Zaldibia. 1.9448 danera. Batez beste, hortaz, 1.080 lagun herriko. Hitz batez: Gipuzkoako herriak txikiak oraindik ere euskeraz ari dira gehienik. Baina, danera, ez dira 19.448 | 495.553 baizik; alegia, hogeiheren bat, 76'5. Hogei aldiz inportanteago dira, jendaketaz. erdaldunak euskaldunak baino; ekonomiaz, jakinduriatza eta gizarite-mailaz areago. Eta euskaldunenak nekazaz-

ri-herriak diran ezkerero, gazteria galtzen ari dira: gaitzek, bizi beharrez, kalera jotzen baitute, baserri-ekuskaidek zaharren eskuetan utziz. Euskaldun baster horiek, hortaz, alderdi guzietatik begiraturik, erde, gain-behera doazen alderdiak dira.

Gipuzkoa, beraz, honela segitzekotan, laister baino laisterago erdaldun hutsa izango dugu.

Eskola-maisuek ez dute patua onduko. Agirre'ren Txostenak agererrazten duenez, maisuen artean 76'18-k dakite gaur euskeraz («s6lo un 18 % lo sabe bien»). Ikasleen artean, ordea, gorago esan dugunez, 76'37'-eg dakite euskeraz gaur. Diferentzia egin ezkerero, beraz (37'18'0 = 15'7) gaurko euskaldun haurren erdiak beren hizkuntza ezagutzen ez duten irakasleak dituzte. Erdaldunetza ez dute maisu horiek geldiaraziko... Eta ba dakigu, noski, irakaspen guzira erderazko daal (ikasleak ez dute egoera hau sukoinki aldatzen).

Ba dago besterik, halere. Toxtenak dionez, Gipuzkoako seme diran irakasleen artean 76'00-ek ba dakite euskeraz. Gaurko haurren artean, ordea, eta esan dugun bezela, 76'37'-ek dakite bakarrak. Irakasleen eta ikasleen arteko desberdintasuna adina dan ezkerero (25 urte diferentzia, eman dezagun, gutxi gora-behera), horrek garbi erakusten digu kakaia zer dan: azkeneko urteotan Gipuzkoan euskaldunen kopurua 60-tatik 37'-tara pasa da. Iai-ia erdira, alegia!

Gainerako euskal probintzietan horrelako lan bat egitea oso interesantzia izango litzake. Ez digu orainoz. (Nobiarrena dago Iparraldeari dagokionez, Agirre'rena baino axalekoago). GAUK'en Txostenak, halere, oso aitzarna argitsuak ematen ditu gaurko egia somatzeko.

Ondoko hau, esate baterako: maisuen artean, zenbatek dakien euskeraz kontutan hartzeko. Agirre jaunak hau dio: Gipuzkoan sortutako maisuen artean, 76'00-ek dakite euskeraz; Nafarroa'koen artean, 76'13'-ek; Bizkai'koen artean, 76'11-ek; eta Araba'koen artean, 76'2-k. Irakasleen arabera hori baldin bada (eta Gipuzkoan, haurretara igarotzeko 60-etatik 37'-tara pasa behar bada ahaztu gabe), ondorioa garbi dago: euskera IA HILDAKOTZAT jo ditek GAUK haurren artean bai Nafarroa'n, bai Bizkaia'n eta bai Araba'n. Baster horiek ikusten dituztenek ez dute besterik esaten. Xehetasun jakingarri bat, halere: euskeraren egoera txaragoa dala Bizkaia'n Nafarroa'n baino.

Dugun giroak ez ditu gauzak hobetuko: neuk bezin ondo daki irakurleak administrazioan, irakaskintzan, armadan, industrian, prentsan, irratian, telebistan, euskeraz eta erderak dituzten parteak.

Erdararen eta euskeraren kulturabaliok aipatu beharrik ez dago, bestalde.

Hiletari izan gabe, hortaz, gaudak ez aldatzekotan etorkizuna hau da: gureak egin du!

Eta hauxe da larriago (larriagorik bada). Judatarrek, finlandiarrek, txekoslovakiarrek, poloniarrek, kataluniarrek, eta beste guzi-guziek, legezko bideak lortu artean ere, eusti egin zioten beren hizkerari: ez iturraz, benetan baizik. Ez zuten hizkuntza-pizkundearn arazoaz gerorako utzi: hizkuntzaren pizkundea lehenagotik hasi zuten.

Gure artean ez. «Gramatika bat eta hitzegi bat aski dira euskera piztuteko» esan zuen behin gure arteko batek; eta kito. Lasai! Bana konponduko da! Erderaz barra bara; baiña hazi hortatik mirari mirresgarria: danok euskeraz egingo!

Aski da! EZEREN ZAI EGON GABE, EZERI LEHENTASUNIK EMAN GABE, gure indar guztiez euskera erabil ditago eta bultzta.

Ala kito gera. Eta hortara ixil gaitzen, eta etorkizun arrosa horien ametsa alde batera utzi dezagun. Euskal Herria maita duena euskeraz mintzo da; eta ez dabaki, ikasi egiten du. Hunek ez du bueltarik, eta ez du sekula izango.